



Aurrekontu partehartzaileak 2025

Presupuestos participativos 2025

Proposamena

Propuesta

9001-Parke Berdea

9001-Parque Verde

Parke berde bat, belarra, zuhaitzak, loreak, zuhaixkak... natura alegia, eta umeentzako guneekin, betiko txin-txaunez haratago. Material naturalekin (zurarekin, esaterako) sortutako oztopoak jarriko dira, baita harearemuak ere. Adibide gisa, hor da Zornotzako Jauregibarria parkea: ibaia du, antziri txiki bat ahateekin, udan gerizpea ematen duten zuhaitzak eta zuhaitzik gabeko berdegune zabalak ere bai. Hormigoizko hodiak ditu aurrentzako tunel gisa eta bidegorri erako bideak ere bai. Beste adibide txikiago eta hurbilago bat Elorrioko Ganondo parkea da. Durangok beharko lukeen baino berdegune gutxiago ditu. Zuhatzola parkea proposatzen dudanetik hurbil dago, baina ez dago erdigunean eta txin-txaun "naturalagoak" beharko lituzke. Pena da horrelako parke batean txin-txaun "normal" eta artifizialak jarri izana, loturarik apenas dutenak inguruko berdetasunarekin. Jendeak autoa hartu ohi du bertara iristeko, eta hori pena bat da, eta horregatik beharbada izaten da horren jende gutxi. Berdegune basatuago batek onura ekarriko lieke haurrei, eta baita gainerako herritarrei ere.

Un parque verde, con hierba, arboles, flores, arbustos... naturaleza, y con una zona para niños que no sean unos simples columpios. Obstáculos creados con materiales naturales como madera, incluso zonas de arena. Como ejemplo está el parque Jauregibarria de Zornotza que incluye río y una pequeña laguna con patos, zonas con árboles que dan sombra en verano y amplias zonas verdes sin arboles también. Tubos de hormigón para hacer túneles para los niños y caminos tipo bidegorri. Otro ejemplo más pequeño y cercano es el parque Ganondo de Elorrio. Durango no tiene suficientes zonas verdes para el pueblo que es y la ubicación de la que goza. El parque Zuhatzola no está lejos de lo que propongo, pero me refiero a algo más céntrico y con una zona de niños o columpios más "naturales". Es una pena que en un parque así se hayan puesto unos columpios tan "normales" y artificiales y no algo que se una más con lo verde. La gente suele coger el coche para llegar, lo cual es una pena, y creo también que es la razón principal por la que nunca hay mucha gente. Los niños se beneficiarían muchísimo de tener una zona verde más asilvestrada donde poder estar, y la población general también.



Bideragarria da? BAI

¿Es viable? SÍ

Aurrekontua: 100.000 €

Presupuesto: 100.000 €

EZAUGARRI TEKNIKOAK | CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

Udal kompetentzia da eta politika publikoekin bat dator?

¿Es competencia municipal y es acorde a las políticas públicas?

Bai | Sí

Interes orokorrekoa da? | ¿Es de interés general?

Bai | Sí

Proiektuaren ideia nagusiak

Adierazitakoaren arabera, badirudi hiri-eremuan parke berri bat egitea eskatzen dela.

Adibide gisa, 2020an Otamotzena parkea egokitu zen; 9.600 m² inguruko lursaila, 450.000 € inguruko inbertsioarekin.

Proposamenarekin antza duen obra berri hori erreferentziatuz hartuta, 100.000 €rekin lehendik dagoen berdegune bat aukera liteke, eta 2.000 m² inguru egokitu.

Ideas principales del proyecto

Por lo que se indica, parece entenderse que se solicita la ejecución de un nuevo parque en la zona urbana.

Como ejemplo, en 2020 se acondicionó el parque de Otamotzena; una parcela de superficie aproximada de 9.600 m² con una inversión de unos 450.000 €.

Tomando como referencia esa obra reciente que se asemeja a la propuesta, con 100.000 € podría elegirse una zona verde existente y se podrían acondicionar unos 2.000 m² de parque.